



ZIRKULARRA, 2007ko IRAILAREN 28koa; HORREN BIDEZ EZARTZEN DIRA JARRAIPEN-SARIARI DAGOKION FINANTZAKETA LORTZEKO JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Urriaren 19ko 289/1993 Dekretuak arautzen du ordainketa delegatuko sistemaren ezarpena Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxeetan.

Dekretu horren 3. artikulua ("ordainsari-konzeptuak") ezartzen du "erretiro-saria", Euskadiko Irakaskuntza Pribatuko Hitzarmen Kolektiboak finkaturiko kontzeptua, hain zuzen ere.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren itunpeko irakaskuntzan aplikatzekoak diren hitzarmen garrantzitsuenak aztertutakoan, egiaztatu denez, "erretiro-sari"aren kontzeptua ezabatu egin da hitzarmen horietatik 2007ko ekitaldirako, eta "jarraipen sari"aren kontzeptua ezarri da haren ordez.

Hortaz, itunpeko irakaskuntzako irakasleek bete beharreko baldintzak definitu behar dira, ikastetxea kontzeptu horrengatik finantzaketara bil dadin.

Ordainketa delegatuko sistemaren bidez egingo da ordainketa.

1.-Jarraipen-saria baliatzeko baldintza orokorrak.

- Irakasleek ordainketa delegatuko sistemaren barruan egon beharko dute sariaren eskaera egiten den unean, eta, horretaz gain, aurreko segidako azken hiru ikasturteak beharko dituzte eginak izan sistema horren barruan.

Irizpide hori aplikatzeko aldi iragankor bat ezarriko da, eta honako baldintza hau betetzea eskatuko du:

1. 2007/2008 ikasturtean jarraipen-saria eskatzen duten irakasleek ordainketa delegatuko sistemaren barruan beharko dute egon ikasturte horretan eta aurrekoan, hau da, 2006/2007 ikasturtean.
2. 2008/2009 ikasturtean jarraipen-saria eskatzen duten irakasleek ordainketa delegatuko sistemaren barruan beharko dute egon ikasturte horretan eta aurreko bietan, hau da, 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteetan.

2009ko ekitalditik aurrera, irizpide orokorra izango da aplikatzekoa.

- Jarraipen-sariagatik ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, bi faktore izango dira kontuan: dedikazio-ehunekoa eta langileak eskaera aurkeztu duen datarekiko aurreko hilabetean langileari esleituriko hilekoa.
- Besteren konturako langileek, Gizarte Segurantzari kotizatzen dioten langile kooperatibistek —eta, hortaz, besteren konturako langileari asimilatutzat hartzen direnek— eta hurrengo paragrafoen bildu gabeko gainerako langileek ordainketa delegatuko sistemaren bidez jasoko dute ordainketa, eta zuzenean egingo zaio ordainketa hori langile bakoitzari.
- Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatzen duten langile erlijioso eta kooperatibistek jarraipen-saria jasoko dute ordainketa delegatuko sistemaren bidez, eta ikastetxeari egingo zaio ordainketa.
- 07/01/1etik aurrera, saria eskatzen duten langileek 55 urte izan beharko dituzte gutxienez, eta enpresan 20 urte eraman beharko dituzte gutxienez irakasle gisa.
- Jarraipen-sarirako eskubidea izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituen langileak saria noiz eskatuko duen erabakiko du, irakasleen langile-bizitzan behin bakarrik jasotzekoa den zenbatekoa denez.
- Diru-laguntzaren kalkulua: 4 hileko lan egindako 20 urteko bakoitzeko, eta beste hileko bat lan egindako bosturteko bakoitzeko.
- Ordaintzeko era: ordainketa bakarra.

2.-Aldi iragankorra.

- Irakasleek ordainketa delegatuko sistemaren barruan egon beharko dute sariaren eskaera egiten den unean, eta, horretaz gain, aurreko segidako azken hiru ikasturteak beharko dituzte eginak izan sistema horren barruan.

Irizpide hori aplikatzeko aldi iragankor bat ezarriko da, eta honako baldintza hau betetzea eskatuko du:

1. 2007/2008 ikasturtean jarraipen-saria eskatzen duten irakasleek ordainketa delegatuko sistemaren barruan beharko dute egon ikasturte horretan eta aurrekoan, hau da, 2006/2007 ikasturtean.
2. 2008/2009 ikasturtean jarraipen-saria eskatzen duten irakasleek ordainketa delegatuko sistemaren barruan beharko dute egon ikasturte horretan eta aurreko bietan, hau da, 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteetan.

2009ko ekitalditik aurrera, irizpide orokorra izango da aplikatzekoa.



- Jarraipen-sariagatik ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, bi faktore izango dira kontuan: dedikazio-ehunekoa eta langileak eskaera aurkeztu duen datarekiko aurreko hilabetean langileari esleituriko hilekoa.
- Besteren konturako langileek, Gizarte Segurantzari kotizatzen dioten langile kooperatibistek —eta, hortaz, besteren konturako langileari asimilatutzat hartzen direnek— eta hurrengo paragrafoen bildu gabeko gainerako langileek ordainketa delegatuko sistemaren bidez jasoko dute ordainketa, eta zuzenean egingo zaio ordainketa hori langile bakoitzari.
- Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatzen duten langile erlijioso eta kooperatibistek jarraipen-saria jasoko dute ordainketa delegatuko sistemaren bidez, eta ikastetxeari egingo zaio ordainketa.
- Aldi iragankor horretan jarraipen-sarirako eskubidea izateko, gutxienez 60 urte beteak beharko dituzte izan langileek saria eskatzeko unean, eta, horretaz gain, honako eskakizun hauek bete:
 1. 07/01/1a baino lehen gutxienez 55 urte beteta izatea.
 2. Langileak saria eskatzeko unean enpresan 15 urteko antzintasuna izatea.
- Diru-laguntzaren kalkulua: 3 hileko.
- Ordaintzeko era: ordainketa bakarra.

3.- Erretiro-sariaren lehen zatia ordaindu zaien langileen egoera, sariaren zati bat ordaintzeke dagoelarik, langileak behin betiko erretiroa hartzean ordaindu beharrekoa, hain zuzen ere.

Langile horientzako erretiro-sariaren kontzeptua izango da aplikatzekoa orain ere, sarirako eskubidea sortu zen unean sari hori aurreko hitzarmenen eraginpean baitzegoen. Horrenbestez, 06/12/31ra arte zeuden baldintza berak izango dira aplikatzekoak.

4.-Jarraipen-sarien izapidetzea 2007 ekitaldirako.

Langileak jarraipen-saria eskatzeko erabakia hartutakoan, ikastetxeak beteko du eskaera-inprimakia, eta honako hauek izango dira bertan zehaztekoak:

- Jarraipen-sari orokorra ote den.
- Aldi iragankorrean bilduriko jarraipen-saria ote den.

2007ko urriaren 30a baino lehen aurkeztuko ditu ikastetxeak 2007ko ekitaldiari dagozkion eskaerak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzan.



Eskaerak jasotakoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, betiere aurrekontuen arabera, lehentasun-ordena bat ezarriko du horiek ordaintzeko, honako hau, hain zuzen ere:

- Aldi iragankorra aplika dakiekeen langileak.
- Irizpide orokorra aplika dakiekeen langileak. Kasu horretan, sarrera-erregistroaren ordenaren arabera ordainduko dira laguntzak, kreditua agortu arte.

Aurrekontu-faltagatik 2007ko ekitaldian ordaindu ez diren sariak, hurrengo ekitaldian aurkeztu beharko dira berriz ere.

5.-2007ko ekitaldian ordainduriko erretiro-sariak.

Jarraipen-sariak ordeztu beharko ditu sari horiek, eta horretarako, gainerako sariak bezala eskatu beharko dira. Kasu horretan, eta betiere hala badagokio, jarraipen sariaren irizpideen aplikazioaren arabera egokitu dira zenbatekoak.

Vitoria/Gasteiz, 2007ko irailaren 28a.

Virginia Galarraga
ADMINISTRAZIO ETA DIRUBIDEEN ZUZENDARIA